



GURASOEN EBALUAKETAREN EMAITZAK

**2014-2015EKO HASIERAKO GALDEKIZUNEN ETA
2016-2017KO BUKAERAKO GALDEKIZUNEN ARTEKO
ALDERAKETA**

(Eskoriatza)

Galtzagorri Elkarte
2017ko urria



SARRERA

- Txosten honetan Eskoriatzan jasotako gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazioa herri honetan 2014-2015. ikasturtetik 2016-2017. ikasturtera egitasmoan parte hartu duten haurren gurasoei egin zaie. Alegia, 2014-2015ean 3 urte zituzten eta 2016-2017an 5 urte zituzten haurren gurasoei.
- Ebaluazioa 2016-2017. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egin da.
- OHARRA: Txosten honetan Hernanin jasotako gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzen berri ere eman behar zen. Baina, Bularretik Mintzora lantaldeak zerikusirik ez duen hainbat arrazoi direla medio, Gipuzkoako herri honetan Bularretik Mintzoran parte hartu duten haurren gurasoen bukaerako galdekizunik ez da jaso. Eta beraz, ezin izan ditugu txosten honetan bildu.

BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA

- Bularretik Mintzora egitasmoaren baitan burutzen diren ekimenen eragin kuantitatibo zein kualitatiboa aztertu.
Jakin nahi da, egitasmoa herri horietan abian jarri zenetik zer nolako aldaketak eman diren gurasoen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, hiru esparruetan: eskolan, etxean eta liburutegian.
- Bularretik Mintzora egitasmoak antolatu dituen formazio ekimenak baloratzea.
- Bularretik Mintzoraren baitan sortutako materiala baloratzea: gomendatutako liburu-ipuina, CD-ak, foiletoak, esku orriak, ...



METODOLOGIA

- Bukaerako egoera ebaluatzeko, gurasoei galdekizun bat pasa zaie. Honetan, 7 aldagai orokor kontuan hartu dira:
- 1. Irakurketarekiko jarrerak**
 - 1.1. Irakurketaren onurak
 - 2. Irakurketa ohiturak**
 - 2.1. Gurasoen ohiturak
 - 2.2. Kontatzearen egunerokotasuna
 - 2.3. Nork kontatzen du ipuina
 - 3. Kontakizunerako baliabideak**
 - 3.1. Baliabide mota
 - 4. Haur Literaturaren ezagutza**
 - 4.1. HL-ko baliabideen adin egokitasuna
 - 5. Liburutegiaren erabilpena**
 - 5.1. Liburutegira joatearen maiztasuna
 - 5.2. Liburutegian mailegatzen den baliabide mota
 - 6. Bularretik Mintzorako materialaren balorazioa**
 - 7. Bularretik Mintzora egitasmoaren eragina harreman afektiboan**
- Bukaerako galdekizunak, guztira, 10 galdera ditu.
 - Galdekizunak Eskoriatzako bi ikastetxeetan banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen diren bukaerako emaitzak, 2016-2017. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan lortu dira eta 2014-15. ikasturtean jasotako hasierako emaitzekin konparatu dira.
 - Ondoren, atalez atal, aurkezten dira emaitzak.




TXOSTENA

2014-2015EKO HASIERAKO GALDEKIZUNEN ETA 2016-2017KO BUKAERAKO GALDEKIZUNEN ARTEKO ALDERAKETA

(Eskoriatza)

1. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK


1.1. Irakurketaren onurak



Orain guraso guztiek uste dute irakurketa onuragarria dela ikasketetarako (%23 gehiago) eta aisialdiarako (%10 gehiago)


2. IRAKURKETA OHITURAK

2.1. Gurasoen ohiturak




% 15 gehiago dira orain irakurketa ohitura finkoak dituztenak

2.2. Kontatzearen egunerokotasuna



Orain guraso gutxiago dago (**%10 gutxiago**) etxean, ia egunero, ipuinak kontatzen dizkietenak


2.3. Nork kontatzen du ipuina



- Oraindik ere, kontakizunaren jardura gehienbat emakumeen esku dago
- Hala ere, ipuina kontatzen duten aiten kopurua nabarmen igo da: **%34 gehiago** dira orain

3. KONTAKIZUNERAKO BALIABIDEAK


3.1. Baliabide mota



Orain ahozkotasunarekin zerikusia duten baliabideak erabiltzen dituzten gurasoak **%32 gehiago** dira (libururik erabili gabe edo testua liburutik irakuriz)

4. HAUR LITERATURAREN EZAGUTZA


4.1. HL-ko baliabideen adin egokitasuna



Orain **%39 gehiago** dira Haur Literaturako baliabideek izan beharko lituzketen haur hartzaileen adin egokiari buruz informazio **“nahikoa”** dutenak. Hain zuzen, **%69 dira** orain


5. LIBURUTEGIAREN ERABILPENA

5.1. Liburutegira joatearen maiztasuna




Orain, **%73a** joaten da liburutegira, gutxienez, hamabostero; hasieran baino **%18 gehiago**

5.2. Liburutegian mailegatzen den baliabide mota




Orain, ipuinen mailegua hobetu da: **%7** hazi da, hain zuzen ere. Aldiz, teknologia berriena **%26 gutxitu** da eta hitz jokoena, haur kantena, aho korapiloena eta haur poesiarena **%4 handitu** da

6. BULARRETIK MINTZORAKO MATERIALAREN BALORAZIOA



- **%77ak** gomendatutako liburu-ipuina **onak** direla dio, eta **%11 oso onak** direla.
- **%73ak** Bularretik Mintzorako CDak **onak** direla dio eta **%4ak oso onak**.
- **%69ak** foiletoak, gomendioak eta esku orriak, ... **onak** direla dio eta **%7ak oso onak** direla.

7. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN ERAGINA HARREMAN AFEKTIBOAN



%35ak dio Bularretik Mintzora egitasmoan hasi zirenetik hurrekin dituzten harreman afektiboak *hobetu* direla. Aldiz, **%65ak ezetz** dio

